



EUSKAL HERRIKO SURF FEDERAZIOA BASQUE COUNTRY SURFING FEDERATION

EUSKALSURF GAZTE SURF ZIRKUITUA 2025.

- EZAUGARRIAK

○ Egutegia:

- Apirilak 26-27, Itzurun.*
- Maiatzak 17-18, La Arena.*
- Urriak 11-12/18-19, Karraspio.

○ Zirkuituko ezaugarriak:

- Zirkuitu bateratua:
 - Zirkuitu bakarra 4 kategorietan:
 - GAZTEAK MUTILAK (-18)
 - GAZTEAK NESKAK (-18)
 - HAURRAK MUTILAK (-14)
 - HAURRAK NESKAK (-14)
 - Zirkuitu irekia.
- Froga ospatu ahal izateko 24 parte hartzaile baino gehiagok gauzatu beharko dute izen ematea kategoria guztiak gehituta. Gutxieneko hau bete ezean txapelketa bertan behera geratuko litzateke.
- Kategoria bakoitza ospatu ahal izateko gutxieneko parte hartzaile kopurua gizonetzkoetan 12koa izango da, eta emakumezkoetan 6koa.

○ Lehiaketa sistema:

- Kanporaketa bidezko lehiaketa.
- Egun batean edo bitan lehiatuko da: Larunbatean edo/eta igandean.

○ Zirkuituko sailkapen sistema:

3 froga izango dira (Itzurun, La Arena eta Karraspio):

- Hiru emaitzak hartuko dira kontutan.
- Azken frogako emaitzak (Karraspio) balio bikoitza izango du.

Zirkuituko hiru frogak irekiak izango dira, hala ere hondartzaren ezaugarriek, mareak edo eta argi orduak txapelketa bakoitzeko iraupena baldintzatu dezakete honekin batera parte hartzaileen kopurua ere mugatu daitekeelarik.

**** Itzurun eta La Arena frogak, EH Txikiaren rankina eskuratzeko baliagarriak izango dira.**



EUSKAL HERRIKO SURF FEDERAZIOA BASQUE COUNTRY SURFING FEDERATION

- **Seeding 2025:**

- Lehen froga (Itzurn): 2025ko zirkuituko sailkapenaren arabera.
- Bigarren froga (La Arena): 2025ko zirkuituko sailkapenari 2024ko zirkuituko sailkapena gehituko zaio (La Salvajeko lehen frogarena).
- Hirugarren froga (Karraspio): 2025ko zirkuituko sailkapenaren arabera (Itzurn eta La Arena frogak).

Txandak froga bakoitzeko seedingaren arabera antolatuko dira.

- **Izen emateak:**

Epea:

Froga aurreko **astelehenean (24:00h PM) itxiko dira.**

Parte hartzaile guztiek gauzatu beharko dute izen ematea aurre ikusitako epe eta bidearen arabera. Froga egunean izen ematea edo eta ordainketa gauzatzea onartezina izango da.

Arazo informatiko edo eta akatsen bat izango balitz izen ematean parte hartzaileak idatziz (email bitartez) jakinarazi beharko dio federazioari honekin batera arazoaren frogak atxikituz (akatsaren pantaila-argazkia edo ordaintze sistemaren agiria) izen emate epearen biharamunaren 14:00h baino lehen (froga aurreko asteartean).

Erreklamazioa ezarritako epean eta moduan egiten ez bada, parte-hartzaileak proban izena emateko eskubide guztia galduko du.

Itxaronaldi epea duen frogan (Karraspio) edo baldintza egokirik izan ez delako atzeratu behar izan denetan, txapelketa egingo den hala ez jakinaraziko du antolakuntzak, froga egin aurreko **asteazkenean.**

*** Antolakuntzak argi berdea ematea edo, aitzitik, txapelketa atzeratzea erabakitzen duenerako, parte-hartzaile guztiek izen ematea gauzatu izan beharko dute aurre ikusitako epe eta bidearen arabera, hau da; froga ospatu aurreko astelehenean (24:00h PM itxiko dira).**

Atzerapena gertatuz gero, izena eman duten parte-hartzaileek inskripzio horri eutsiko diote, eta berriro irekiko da parte-hartzaile berrientzako izena emateko epea frogaren aurreko astelehenera arte. Eta horrela hurrenez hurren.



EUSKAL HERRIKO SURF FEDERAZIOA BASQUE COUNTRY SURFING FEDERATION

Froga batean izena eman eta atzeratu beharragatik parte hartuko ez duten parte-hartzaileek (ezinbesteko kasuetan izan ezik, antolakuntzak baloratu beharko du) emailaz jakinarazi beharko diote federazioari, izen-emateak itxi eta hurrengo eguneko 14:00ak baino lehen (probaren aurreko **asteartea**), izen-ematearen zenbatekoa itzultzeko eskatuz. Une hori igarotakoan, zenbateko hori erreklamatzeko aukera galduko da.

Zenbatekoa:

30 €

Baldintzak- Izen emateko modua:

EHSF web gunearen bitartez: euskalsurf.com.

- EHSFkoak ez diren lizentziak: Federatu lizentzia eguneratua aurkeztu beharko da eskaneatuta eta email bitartez.

○ **Zigorrak:**

Froga ospatzen den bitartean txandaz kanpoko beste parte hartzaile batek (gainontzeko kategoria batean parte hartuta ere) lehiaketa oztopatuko balu eta identifikatu eta ohartarazpenari kasu egingo ez balio dagokion zirkuituko ondorengo bi frogetan parte hartzea debekatuko litzaioke.